



“ ”

Galtzaile bihurtzen gara bizitzan aurrera egin ahala

Aritz Galarraga

Gogoan dut argitaratu du Aritz Galarragak, pertsonalki irakurria izaterik nahi ez duen liburu autobiografikoa. Joe Brainardek *I remember* (Oroitzen dut) liburuan darabilen formula bere eginda, bizi oroitzapenak katigatu ditu errenkada luze batean, memoriaren mekanismo kapritxosoari bide emanaz. Esaldi soilak zenbaitetan, irudi osoagoak beste batzuetan, asmo literarioz onduak, eta orrialdez orrialde pertsonaia bat eraikitzen dutenak. Hitz egin dugu ni-aren literaturaz, aberriaz, Kataluniaz, eta liburuan agertzen diren beste hainbat gairi buruz.

KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Biriatuko hilerrian pasa nahiko luke eternitatea Aritz Galarragak (Hondarribia, 1980): “Ez zait lekurik txarrena iruditzen, nahiz eta badakidan gero nahi dutena egingo dutela”. Betiko atsedenaldirako ez ezik, elkarrizketarako –eta batez ere argazkietarako– iruditzen zaio toki paregabea, zer esanik ez ilunabarrean: “Han urrunean eguzkia oso modu ederrean desagertzen da”. Behin posatzera jarrita, ordea, 1915ean Galipoliko batailan hildako Joseph Eyheramendyren hilobia hautatu du eszenatokitzat. Pozik dabil, eta erruaren zati handi bat liburuari egozten dio: “Ez neukan itxaropen handirik, eta jasotzen ari naizena ederra izaten ari da. Uste dut liburuak lortzen duela konektatzea moduren batera edo bestera irakurlearen memoriarekin, zerbait aktibatzen dio, eta jartzen da gogoratzera”. Euria hasi digu, baina jasa-

rik botako ez duen esperantzan zuhaizpe batean babestu eta solasari ekin diogu.

Hauxe duzu bakarkako lehen liburua, baina literaturaren bueltan ibili zara aspalditik: idazle kolektibo, kritikari, zutabegile... egiten duzunaren atzean ia beti sumatzen da asmo literarioa.

Bai, saiatzen naiz gauzak beste modu batera begiratzen. Zutabegintzan –eta kazetaritzan, oro har– jendea aktualitateari oso lotuta sumatzen dut, eta niri aktualitatea ez zait interesatzen, ez behintzat idazteko gai bezala: oso efimeroa da, gaur berebiziko interesekoa dirudiena bihar agian ez zaigu batere interesatuko. Beraz, bai, saiatzen naiz begirada pixka bat altxatzen eta bihar edo etzi ere irakurtzekoa izan daitekeen zerbait idazten. Azkenean, gai literarioak, hunkitzen gaituztenak, ez dira asko. Egiaz, zerbait

atenporalagoa egitea oso erraza da: eskatzen du literatura hartzea ezagutza eta esperientzia iturri oso garrantzitsu gisa, hau da, aurrez jendeak idatzi duen hori, eta, batez ere, idatzitako horretatik gaur egunera arte iraun duena. Uste dut hor oso material interesgarria dagoela, eta balia daitekeela gaur egunetik hitz egiteko.

Eta orain, 40 urte bete berritan, zer eta memoria liburu bat argitaratu duzu –nolabait esatearren–. Bizitzako ziklo baten amaieran egin ohi dira memoria ariketak, batek atzera begiratu eta zer kontatua duenean. Une horretan zauden seinale al da?

Bai, nik uste horretatik ere baduela. Edo nola ere, iruditzen zait memoria liburu bat edozein unetan idatzi beharko litzaitekeela, hasteko eta behin ez dakigulako

80 urteetara iritsiko garen memoria liburu konbentzional bat idatzi ahal izateko. Baina liburua bada zerbaiten itxiera edo dolua. 40 urteak sinbolikoki badi-ra zerbait –bizitzaren erdia, estatistiken arabera–. Stefan Zweigek zioen bezala bizitzaren erdia da igoera moduko bat, eta bigarren erdia, aldiz, jaitsiera.

Aipu hori lehenago ere entzun dizut.

Bai, baina elkarrizketa honetarako propio ekarri nahi izan dudana aipu bat botako dut, edozein unetan, ea harrapatzen duzun [barreak]. Hariarekin segiz, beraz, oraintxe nengoke erdi puntu horretan –askok bizitzaren floria deitu izan dutena–; hau da, oraindik nahiko gazte zahartasunaren keriak ez nabaritzeko, eta jada aski zahar gaztetasunaren inozentzia ez erortzeko. Dantek esaten zuen [barrez]: *Nel mezzo del cammin di nostra vita*. Bada hori, bizitzaren erdian gaude, dena ondo badoa. Eta badago horren dolua, gauzak ixteko gogoa: zein da balantzea? Lehen erdi horri negar egingo diogu, eta ikusi igoera horretan zer izan garen.

Materiala pilatzeko hasi zinen memoria ariketok idazten, gerora zutabeetan edo auskalo non erabiltzeko. Noiz eta zergatik pentsatu zenuen hemen liburu bat egon zitekeela?

Hasieran, oroitzapenak etorri ahala apuntatzen nituen koaderno batean. Ordurako irakurria nuen Joe Brainarden *I remember* liburua. Zirrara modukoa eragin zidan: memoria liburua zen, bai, baina ez batere konbentzionala, eta bere mekanikak harrapatzen zintuen uholde batean, eta eramaten zintuen. Formula ona iruditu zitzaidan zutabeetarako materiala pilatzeko, inolako asmo handiagorik gabe. Halako batean kontuak bolumen pixka bat hartu zuen, ehunka oroitzapen bildu nituen, eta ohartu nintzen bildumak bazeuzkala literaturari egotzi ohi zaizkion ezaugarriak: pertsonaia baten osaketa, peripezia modukoak, eta tonu bat. Oroitzapenen bilaketa aktiboago bat egiten hasi nintzen, argazkiak begiratzu, pelikulak ikusiz, lekuak berriz bisitatuz... Ez da oso bilaketa sakona izan, memoria-ri utzi nahi izan diodalako bere lan kapritxosoa egiten. Azkenik, lana borobildu nahi izan dut literaturaren elementuak erabiliz, emaitza lan literario gisa identifikatu zedin, eta ez oroitzapen bilduma soil bat bezala.

Ni-aren literaturaren barruan sartu



behar ote dugu, bada?

Gai horrek eman dit zer pentsatua azkenaldian. Kontxo, 20 urte daramatzat jada idazten, prentsan gauzak argitaratzen, eta maiz samar hitz egiten dut nitaz, edo sartzen dut nire itxura daukan pertsonaia bat. Nik, neure burua oharkabean igaro nahi duen pertsona ezdeustzat dudana honek, ustez inolako anbizioarik eta goranahirik gabea naizen honek, zergatik hitz egiten dut hainbeste nitaz? Bada uste dut dela, gaizki ezagututa ere, ondoen ezagutzen dudana gauza ni neu naizelako. Bestalde, ez daukat batere fantasiarik, fikziozko nobela bat idazten hasiz gero agian egingo nuke, baina zientzia fikziozkoa –edo mundu niretzat oso arrotz bat asmatzea eskatzen duena– ez behintzat. Beraz, bizitakoa, sentitutakoa, kontatu didatena, dira nire erregaia. Eta ni-ra jotzen dut, pentsatuz hortik arituz jende gehiagorengana irits naitekeela, eta hitz egin dezakedala, finean, gutaz eta inguratzen gaituenaz. Ni-aren literatura egoarekin lotzen da, baina niri ez zait batere interesatzen atzo gertatu zitzaidana besterik gabe kontatzea. Niri gertatuak irakurketa unibertsalagoa baldin badu soilik erabiltzen dut.

Ana Arsuagak aipatu zidan halako zerbait elkarrizketa batean: bere bizitza izan daitekeen anekdota

ez zaiola arterako interesatzen. Izan duzu kezka hori liburua idazterakoan –anekdotan geratzekoa–?

Bai. Eta, batez ere, ez zedila irakurria izan gauza pertsonal bat bezala –nahiz eta hala irakurria izango den, ezinbestean–. Ez dut liburu hau publikatu nire bizitza oso berezia dela uste dudalako, baizik eta kode literarioan moldatuta irakurketa unibertsalago bat izan zezakeelako. Nire egoa beste modu batzuetara asetzen dut, baina ez literaturaren bidez: ez dut ulertzen literatura terapia bezala, are gutxiago idazlearentzako terapia bezala –irakurlearentzako ere ez–. Liburu hau ez dut idatzi ez dakit zer trauma gainditzeko –horretarako psikologo batengana joango nintzateke–. Egia da liburu autobiografiko gisa aurkeztu dudala. Baina Flaubertek esaten zuen... [barrez].

Esango nuke orain datorrela aipu madarikatua...

Asmatu duzu [barrez]. Tira, orain ondo bota behar dut: Flaubertek esaten zuen genero autobiografikoa dela genero guztietan faltsuena, hain zuzen ere, zintzotasun irudi bat eman nahi duelako. Horretaz kontziente izanda, eta liburua autobiografikotzat aurkeztuta, irakurketa pertsonala gainditzeko nahiko nuke, eta ez geratzeko xehetasunean: ez da kon-

tu kitatze bat –bakean nago jendearekin, nik dakidala behintzat–.

Liburua irakurri ahala, bereizi ditut bi ahots mota: oroitzapen soilak, alde batetik, eta oroitzapenen gaur egungo komentarioak, bestetik –gehienetan tonu ironikoan ematen direnak–. Ez al dago tonu ironiko horretan errekurtsio kontserbadore bat, oroitzapenen jaulkitze hutsa bere horretan aski ez balitz bezala?

Kuriosoa da, ez dit inork galdetu, baina liburua publikatu aurretik irakurri zutenetako batek komentario baloratibo horiek seinalatu zituen, esanez agian ez zetozeela bat liburuaren izpirituarekin. Aipu madarikatua harrapatu duzu, baina hara Julian Barnesek zer esaten zuen: berari oroitzapenak etortzen zitzaizkiola, baina oroitzapen horiei lotutako emozioak ez. Niri bietarik gertatu zait: oroitzapena besterik ez etortzea, baina baita momentuan oroitzapen horri lotutako emozioen bat sentitzea ere –batzuetan garaiko emozioak, eta besteetan orainaldian sortu direnak–. Eta horregatik daude liburuan komentario baloratibo horiek, denboraren perspektibatik oroitzapenak distantzia ironiko batekin ikusten ditudalako batzuetan. Edonola ere, zaila izan da neurria aurkitzea: ez nuen beti gauza bat egin nahi, ez beti bestea ere.

Esan daiteke zeu ohartzerako lumak zaramatzala ironiara?

Bai, zalantzarik gabe. Eta hain zuzen ere hori frenatu behar izan dut liburua norabide horretan gehiegi karga ez zedin. Pasatzen zait zutabeetan, eta edozein giza jardunetan –ahoz zein idatziz–. Interlokutorearen arabera, neure burua frenatu behar izaten dut pisutsuegia ez izateko. Askotan pentsatu izan dut umorea, eta zehatzago ironia, bi ahoko labana dela: zer bait konplikatua desataskatzeko balio duen bezala, balio dezake zer baiti ez aurre egiteko ere. Saiatzen naiz neurria hartzen. Edonola ere, ezer ez da hain garrantzitsua. Hasteko, gu geu. Norbere burua serioegi hartzen duenak arazo handi bat dauka. Eta hortik hasita, dena: ideologia gotorren edo identitate oso sendoen aro bat baldin badator... beldur handia ematen dit eszenatoki horrek. Zenbat eta identitate gogorragoak defendatu, orduan eta tarte txikiagoa dago askatasunarentzat. Gertatzen da identitate nazionalarekin, sexualarekin... denarekin.

“Gogoan dut euskalduntasuna arazo bat izatera iritsi dela”, diozu beste une batean.

Oroitzapen horrek lotura dauka munduaren aurrean beti euskaldun gisara aurkeztu beharrearekin. Batez ere kanpoan, ikusten duzu jendeak euskaldunez daukan irudia noraino den estereotipatua eta klizez bete. Orduan, une batean irits zaitezke nahi izatera zer bait neutroagoa. “Nongoa zara?” galderari erantzutea “X-koa”, eta “X” horrek ez bereziki ezer eragitea –oro har, nahiago dut indiferentzia eragin, lilura txoro eta batere funtsik gabekoa baino–. Baina gero iruditzen zait euskaldunok badugula erruaren parte bat, beti gabiltzalako, adibidez, euskara gora eta euskara behe-ra, hizkuntzaren polizia horiekin guztiekin, gauzak zuzenki nola esan behar diren kezkatuago beste ezerekin baino. Oso modu agonikoan bizi dugu gure izatea, bihar bertan desagertuko bagina bezala. Tira, agian bai... eta zer? Denbora eta energia gehiegi galtzen dugu txikikerietan, eta jarrera agoniko horrek ez dakit ez ote duen areagotzen balizko desagertze prozesua. Aldiz, jarrera lasaia bagenu, dramarik gabea, modu naturalagoan biziko bagina, ez dut ezer ziurtatzen, baina akaso...

“ ”

Niri gertatuak irakurketa unibertsalagoa baldin badu soilik erabiltzen dut

Herman Melvilleren *Bartleby* ere ageri da liburuan, eta iruditzen zait zeure bizitzarekiko jarreraren deskribatzaile egokia dela hark zioena: “Aukeran, nahiago ez”.

Bai, baina gero hala ere egin egiten dut. Kontraesan handi batean bizi naiz: energia oso gutxiko tipoa naiz, baina hala ere badago zer bait, barne indar bat, parte hartzera bultzatzen nauena. Borroka bat sortzen da zure egoera ustez naturalaren –sofan etzanda egotea– eta zer baiten parte izateko nahiaren artean. Hala ere, parte hartzekotan, oso kanpotik, besteak beste sinetsita nagoelako kanpoko begirada dela pribilegiatua, eta ez zurrumbiloaren erdian dagoenarena.

Askotan pasatzen zait Kataluniarekin: jendeak deitzen dit pentsatuz han bizi naizelako eduki dezakedala begirada pribilegiatua hangoarekiko, eta uste dut justu kontrakoa dela.

Liburuak asmo literarioa duen neurrian, badu pertsonaiaren eraikuntza ere. Ez da euskaldun prototipikoa, baina otu zait identifikagarria dela literatur tradizio oso zabal batekin: gizon heldu, desapegatu, ironiko, galtzailea... Badago molde oso ezagun bat hor.

Bai, liburuan zehar osa daitekeen pertsonaiaren emaitza tradizio baten baitan koka daiteke–Thomas Bernhard etortzen zait kolpean burura–. Irakurle gisa, askoz gehiago erakartzen nau tradizio horrek heroien edo irabazleen narratibek baino. Ez zaizkit batere interesatzen, hasteko, ez dakidalako errealtatean parekorik ba ote duten. Nork ikus dezake bere burua garaile gisara bizitzaren kontrako borrokan? Pretentsio handikoa da, eta ez dator bat gehiengoaren bizitzarekin. Gehienok galtzaile bihurtzen gara bizitzan aurrera egin ahala, baita fisikoki ere. Eider Rodriguezek badauka ipuin oso polit bat: hagina usteltzen zaion emakume bati buruzkoa da, nola hil aurretik gorputzaren zatiak hiltzen doazkigun, nola galtzen dugun ilea, forma fisikoa... Galera pilaketa bat da bizitza, beste ezer baino gehiago. Hortaz, inspiagarriagoa zait bere zauriak erakusten dituenaren bizitza, bere garaipenak eta urrezko dominak erakusten dituenarena baino.

Jende asko aipatzen duzu. Asko anonimoki, baina beste zenbait izen abizenek: Santi Leoné, Itxaro Borda, Patxi Larrion, Ibon Rodriguez, Gorka Bereziartua, Beñat Sarasola... Zergatik bereizketa hori?

Omenaldi modukoa egin nahi nien lagunei, lagun literarioei batez ere. Zorte handia daukat ingurune literario oso interesgarria edukitzeagatik, eta komentatu ahal ditudalako nik idatzitakoak, irakurritakoak, haiek idatzitakoak, eta abar. Egune-ro hitz egiten dugu, eta hori, etxekoekin salbu, ez zait beste inorekin gertatzen. Aukeratzen duzun unetik literatura bizibide –ezen ez ogibide– bezala, hau da, hautatzen duzunean, literaturatik ezin, baina literaturan bizitzea, bada, mundu horretako lagunak oso baliotsuak dira, eta haiekiko aitorpena ere bada liburua. ●